

HERRIKO KONTUAK: ARKUPEK BOST URTE / AIA: JULIANA ARGOTE
ERREPORTAJEA: GURE ZAHAR MAITEAK


KARKARA

99A



San Nikolas 2000

*Zientziari unea eta gunea
eskaintzeko garaia da.*



Miramon Zientziaren KutxaGunea

*Kutxan beti eskaini izan diogu tarte oparoa kulturari: hor
ditugu, esate baterako, Erakusketa, Konzertuak, Argitalpenak,
eta makina bat lankidetza garrantzitsu. Zinemaldiarekin,
Musika-Hamabostaldiarekin, Aquarium, Kilometroak eta beste
hamaiaka jarduerarekin.*

Eta holaxe jarraituko dugu etorkizunean ere.

*Baina gure gizartea ez dago geldirik. Etengabe aurrera doa.
Horregatik, pentsatu dugu bazela garaia, modu erraz eta
atseginean, zientziaren ezkutukiak aurkitu ahal izango ditugun
gune bat eraikitzeekoa: **Miramon Zientziaren KutxaGunea**,
hain zuzen. Dena askoz ere argiago ikusiko duzuñ gunea.*

KARKARA

Orio eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea
20810 ORIO
943 83 15 27
karkara@topagunea.com

LEGE GORDAIAKA SS 346/90

ISSN 1132-1105

TIRADA 2.600 ale

EDITORIAL
KARKARA TALDEA

ZUZENDARIA
Ana G. de Txabarri

ERREDAKZIO BURUAK
Rikardo Uzkudun
eta Pat Cowie

ERREDAKZIO TALDEA
Miren Etxeberria, Jakes
Goikoetxea, Ana Iturain, Iñaki
Iturain, Nere Manterola,
Alnara Peña eta Jabier
Zabaleta

AIAKO ERREDAKZIOA
Eli Lasa

PUBLICITATEA
Mari Jose Alkain

TESTUEN ZUZENKETA
Iñaki Iturain eta
Jabier Zabaleta

ALE HONETAKO LAGUNTAILEAK
Xabier Sukia, Ibon
Arrizabalaga, Ramiro
argazkiak, Trini Genoba,
Andres Garmendia eta
Mikel Marquez

ARGAZKien DIGITALIZACIOA
Ana G. de Txabarri

DISCRIMINA

AZALIA Goio Arana

BARRUNDA Jabier Zabaleta

PUBLICITATEA Iñigo Gaztañazpi

AZKEN OBRIALDEKO IRUDIA

Tapia

BANATZAILEAK

Miguel Angel Sanz (Orion)
Iker Zumeta (Aian)

INPRIMATEGIA

Gertu Koop. E. (Oñati)

KARKARA ez du bere gain hartzten
aldizkarian adierazitako esanen
edota iritzien erantzukizunik.

KARKARA argitaratutako berre-
man daiteke, osorik edo zatika,
baldu eta ituria alpatzen bada.

BERTSO JARRIAK

Pedro, Martin eta Nikolas

1

Badira hiru anai ijito
oriotarren gidari
zaharrena Pedro, arrantzalea
ekaineko zaindari,
Martin jaitsi da baseritikan
Ortzaika aldera kantari
Abenduan Gan adi!
Nikolas etorri hadi!
askok lekua gorde diote
Konstituzio jaunari,
baina hik esan beldurrik gabe
baietz Euskal Herriari!

2

Kalera irten eta lagunel
ieup, gabon, kaixo, hola!
karpa handia, barruan txosna
ta bero-bero odola
berbena 'Izotz', bertsolariak,
kantariak, Rock and Roll-a
sexua eta alkohola
kontrolaren deskontrola
kanpoko hotza harruko bero
izan bedi edonola
jakin zazute aurtego txosnan
eltzea sutan dagola.

3

Heldu guztien ilusioa
ta gazteen zoramena
sasoi duenak ateratzen du
parrandarako kemenet
ezin ahaztu urtero-urtero
amak esaten duen:
'gogoan izan onena
goiz etxeratzea dena,
txintxo ibili ta ez mozkortu'
ezin da kunplitu dena,
etxetikan ez irtetea da
pekatutik handiena.

XABIER SUKIA

PUBLIZITATE PREZIOAK

IRAGARKIA ALERO JARIETTA

Modulu bat	1.500 PTA
Bi modulu	3.000 PTA
Hiru modulu	4.500 PTA
Lau modulu	6.000 PTA
Sei modulu	9.000 PTA
Zortzi modulu	12.000 PTA
Orralde erdia	15.000 PTA
Orralde osoa	22.500 PTA

IRAGARKIA BEHIN JARRITA

Modulu bat	2.000 PTA
Bi modulu	4.000 PTA
Hiru modulu	6.000 PTA
Lau modulu	8.000 PTA
Sei modulu	12.000 PTA
Zortzi modulu	16.000 PTA
Orralde erdia	20.000 PTA
Orralde osoa	35.000 PTA

Iragarkia hamabostero edo hilero jartzen dutenei (bi asteik behin) % 10eko deskontua egongo zaie.
Publicitatea kontratatzeko, hitz egin Mari Jose Alkainekin (656 75 04 89 edo 943 13 41 46)



Eusko Jaurlaritza
diruz lagundutako aldiakaria



Gipuzkoako Foru Diputaziak
diruz lagundutako aldiakaria



Orio Udalak
diruz lagundutako aldiakaria



Alako Udalak
diruz lagundutako aldiakaria

Donibane kalea dela-eta

Gu Donibane kalean, Loretu atzeo karkaran, bizi gara eta kartekin izaten ditugun arazoak konpontzea nahi dugu. Kontua da, gure etxeko helbidea, askotan, 'Eusko Gudari trasera' moduan azaltzen dela; eta, hori dela-eta, karta batzuk ez dira gure buzoira ailegatzen.

Hori ez gertatzeko, behingoz, gure kalearen izena zein den argitzea eskatzen diogu dagokionari. Nahiz eta ofizialki 'Eusko Gudari trasera' izena eduki, guk, aukeran, kaleko plakan partzen duen bezala, kartetan ere Donibane jartza nahi dugu eta arazoa behin betiko konpondu.

Gainera, ez al zen, ba, gure Aita Lertxundi famatua ere Donibane kalean jao?

BELEN MURGIONDO

Batasuna prozesua

Ezker abertzalearen baitan, Batasuna (ezker abertzalearen berrindartze) prozesua zertan den aipatzen gatozkizue. Honek etorkizunean izango duen garrantzia jabetuta, ezkertiar eta abertzale sentitzen zaretenoi zuzentzen gatzaizkizue.

Jean den azaroaren 9an, udaletxeen, prozesu hau bideratzeko 8 ponentzia aurkeztu ziren (Arragoa, Bateginez, Aralar...) bakoitzaz bere izaera propioarekin: bost, erakunde berri horren nortasunari dagozkionak, eta beste hiru, ilde politikoari.

Ezker abertzalearen baitan dauden bost sektore edo mugimenduk aurkeztu dituzte ponentziak. Prozesu hau osotasunean eta garbi egiteko, lau batzar egingo dira. Bi, nortasunari dagozkionak, eta beste bi, ilde politikoaren arian.

Lehenengo eztabaida, nortasun ikurrei dagokiena, abenduaren 20an izango da, eta, leku eta ordua zehazteko dagoenez, kartelen bidez kaleratuko dugu.

Batasuna prozesuak duen garrantzia ikusita, parte hartzea importantea da. Eztabaida mamitsua eta sakona izan dadin, denon iritzia behar da. Bukaera ponentzia guziak bezkutuko dira. Beraz, eta eskerrak aldez aurretik emanez, zuen partehartzearen zain geratzen gara. Txostenak bertan batzatu ditugu.

ORIOKO EZKER ABERTZALEA



gutunetarako

OHARRAK

Argitaratu nahi diren gutunak KAR-KARAREN buzoian utz daitezke (udaletxe atzeo portalean), edo gure lokalean entregatu (kultur etxeen). Posta elektronikoz ere bidal daitezke honako helbidera:

karkara@topagunea.com

KARKARAk ez du argitaratuko ize-nik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda.

KARKARAk bere egiten du eskutizak laburtzeko eskubidea.

Kontzentrazio isilak

Orain urtebetetan Orioko Herri Ekimena sortu zen. Euskal Herriaren egoera ikusita, eta, bereziki, euskal preso politikoaren egoerak bultzaturik, herrian hainbat mobilizazio, eztaba eta bideo emanaldi egitera animatu ginen.

Aurten ere, Eguberriak gainean ditugu, eta Euskal Herriaren egoerak okerrera egin du nabarmen azken hilabete hauetan. Euskal presoak eta, bereziki, beren senideak jasaten ari dira estatu frantziarrak eta espainiarra ezarritako esterminiozko metodo errepresibolaren ondorio zuzenak.

Orioko Herri Ekimenak Eguberri hauetan, herriz ere, egingo diren bi kontzentrazio isiletan parte hartzeko gonbita egiten dio Orioko herriari. Seguru baikande herriz herri egindako mobilizazioen ondorioz lortuko dugula euskal preso guziak Euskal Herriratzea.

Goian aipatutako bi kontzentrazio horiek honako egunetan egingo dira: abenduaren 24an, Gabon gauean, igandearekin, eta abenduaren 31n, Urte Zahar gauean. Bi kontzentrazioak herriko plazan izango dira, 20:00etan hasita.

Euskal presoak Euskal Herrira!
EGORTZ MANTEROLA,
JOKIN URANGA ETA İNAKI ANDRES

Santa Zeziliako kontzertua

Santa Zezilia eguna behar bezala ospatzeko idea ezin hobea izan zuten Musika Eskolakoek: ikasleek kontzertua ematea elizan. Aurretik denbora pixka bat emango zuten, noski, bai irakasleek eta bai ikasleek, kontzertua prestatzen; eguna iritsita, bertaratuko ziren guraso eta adiskideek kontzertu polita ikusi eta entzun zezaten.

Eguna iritsita, jende asko inguratzen elizara. Kanpoan eguraldi txarra zen, elizak sonoritatea ona du, eta jendeari ilusioa sumatzen zitzaien gaztetxoen kontzertua ikusi eta entzuteko. Ba, bertaratu ginenok, ez ikusi, ez entzun, ez genuen ondo egin. Eta hiek konponbide erraza dute, ezin errazagoa.

Ondo ikusteko, aldarean jo behar zuten, horrela denok ikusiko genituen musikoak. Eta ondo entzuteko, aldare hartantxa zegoen mikrofona erabili besterik ez zegoen. Gainontzeko instrumentuekin jotakoa, hor nonbait; baina guitarra jotako kantuak ez genituen batere entzun.

Kontzertu ikusgarria eta entzungarria izan zitekeena, azkenean batzuentzat amorragarria izan zen, eta pena da.

Ez dugu ezer zapuztu nahi; alderantziz, bide horretatik segi dezaten nahi dugu, baina oraingo honetan baino hobeto.

Hurrengo kontzerturako kontuan hartua izango delakoan, gaizki esanak barkatu eta ondo esanak aintzat hartu. Agur.

KARMELE, İNAKI, JAIONE ETA EVA

HURRENGO URTERA ARTE!

San Nikolas jaietako zenbaki hezei hau argitaratu ondoren, opor txiki batzuk hartuko ditugu eta, beraz, hamabost egun barru ez duzue etxeen KARKARAk jasoko.

Hurrengo KARKARA, 100. zenbakia izango dena, urtarilaren 5ean ekarriko dute Hiru Erregeek.

Ordura arte, txintxoak izan!

KARKARA TALDEA

Zer da gehien gustatzen zaizuna festetan?



AITOR GRIJALBA

11 urte

Barrakak asko gustatzen zaizkit, eta Gorritiren animaliak ere bai. Nahiago nuke Gorriti gehiagotan etortzea, eta umeen jolasak ere gehiagotan jartzea.

Baina, gehien gustatzen zaidana rock-eko kontzertuak dira.

Nesketan egitea ere nahi genuke, baina oraindik gaztegiak gara.



MIRIAN ARREGI

11 urte

Niri gustatzen zait: tiobiboak, kontzertuak, Gorritiren animaliak... denezik.

Lagunekin ibiltza eta kuadrillako alkandora jazzera ere asko gustatzen zait. Gauean parrandak egitea ere bai.

Hala ere, umeentzako jolas gutxi daudenean aspertu egiten gara.



IÑAKI LARBURU

12 urte

Barrakak eta musika kontzertuak gustatzen zaizkit gehien. Lagunekin ateria eta parranda egitea ere asko gustatzen zait, baina 2:30ak arte bakarrik lagatzen didate gurasoek. Nesketan egitea ere asko gustatzen zait.

Festetan ez zait batere gustatzen etxeangera eta etxeoko lanak gegin behar izatea.



ARANTXA SANTOS

6 urte

Niri koltxonetan saltoka ibiltzea asko gustatzen zait. Pailazoak ere gustatzen zaizkit, baina gehieena tiobiboetan ibiltzea.

Txutxeriak jatea asko gustatzen zait, eta aita eta amarekin kalera ateratzea.

Orioko Ongia

OPIL OKINDEGIA

Frontoi ondoan

Tfnoa: 943 83 01 89

HT

HERRI IKASTOLA

GOIZEKO -
Kafetegia

Gosariak
Pintxoak
Plater Konbinatuak
Ogitartekoak

Pelaketa eta estetika mixta

ZASS

- Teknologia eta materialak agoratzeko
- Distribuzioa eta irakurketa
- Azkenetako teknologiak
- Pediatra
- Depilazioa

Jas. Bikolar, 3 Telf: 943 83 31 70

IRADI

AHOKULARITZA

Aito Lekundia, 27 Telefax 943 13 46 96

GURASO KOOPERATIBA

ABESLARI KALEA, 8

TEL. 943 83 47 04

FAX: 943 13 09 38

Pastoreko enbarguak
hartzen dira

Etxera eramateko
eskatu nahi dugu!!!

Aita Lekundi Kalea, 29
Tel. 943 83 28 55 ORIO



UMEAK BILTEEN. Hamelingo flautistak bezala, umeak bere atzetik zeramatzan gizun orkestrak, kalez kale zibilela.

Arkuperen kaleko festa

■ *Kaleko animazioak berotasuna ekarri zion herriari*

Zorioneko eguna aukera tu zuen Arkupek kale festa antolatzeko curia ia ia egunero egin duen azaro bonetan. Ume asko burbildu ziren ekintzak egin ziren tokietara, eta, ipuineko Hamelingo flautistaren atzean joan ziren umeak bezala, litoratuta geratu ziren.

ARKUPE HERRIKO DEN-DARI, profesional eta ostalarrien elkartea orain dela 5 urte sortu zen. Hori ospatzeko eta herriko giroa alaitzeko festa egitaraua antolatu zuten azaroaren 25ean.

UMEENTZAINO EKINTZAK

Auto telegidatuen erakustaldira ume eta guraso asko burbildu ziren ikastola aurreko zabalunera eta voluntarioak

sobran ziren parte hartzeko. Mimo eta malabarrek, herriz, alaitasuna ekarri zioten kale giroari.

Baina berezieta, beharbeta, orkestra gizon txirrindulari misteriotsua zen; harridura sortu zuen kalez kale zibiliela, musika berezia sortzen

bizikleta gainean bilduta zeuzkan tresna zaharrekin.

HELBURUAK

Larumbaretan, batez ere, herria nahiko hila egoten dela ikusita, ekintzak antolatu nahi dituzte Arkupekoek jendea gusturago egoteko, kaleek bi-

HARIARI TIRAKA

Berpiztuko ote da herria?

Pat Cowie

Oraindik bide luzea falta bada ere, —Autonomia Erkide goko dendarien % 33 daude asoziatuta; Katalunian, aldiz, % 67— inork zalantzaz jartzen al du Arkupekoek egindako ahalegina herriari bizitasuna emateko? Gehiago salduko dutelakoan? Jakina. Sendagileak pazienteak eta Karkarak irakurleak behar dituen bezala, dendariek bezeroak. Baino hori lortzeko aukeratu duten bidea herriaren onerako bada, hobe. Eta aukeratu bakarrik ez, bidea berak jorratzen jarduten dira, denon bizi-kalitatea hobetzeko. Mundu kontsumitzailaren alde ona litzateke, batez ere herritarrok gure aldetik ere zeozer jarriko bagenu.

zitasuna berreskuratzeko eta komertzioak berpizteko. Gainera, Bruselasko erakundeak eta hemengo gobernuak kontratu dira laguntza eman behar zaiela komertzio tradizionalei, bai halako ekintzak antolatzeko, bai Arkupe bezalako taldeek baziak gehiago lortzeko, herriko komertzio txikiak desagertu ez daitezten.

GABONAK

Gabonak datozena-eta, eskaparateak apaintzeko ikastaroa egiten ari dira Arkupeko kide batzuk, eta, horretarako, irakaslea herrira etortzen zaie eskulaneko gauzak erakustera. Sekretupeak dago, oraindik, eskaparateak nola jarri dituzten, baina abenduaren 5erako ikusgai izango dira, egun horretan Merkataritza Ganbarakoak etorriko baitira erretratuak egitera, gero Gipuzkoako eskaparate lehiaketan sartzean. Aurten, herriko dendariek talde gisa sartu nahi zuten, baina lehiaketa ez dago horretarako araututa eta ezinezkou izan da. Eroslei begira, aurreko urteetan, zozketa antolatu bazuten ere, aurten goa boleto-sorpresa izango da; zeozer erosteko momentuan boletoa emango zaio bezeroari, bertan ikusteko edo dirusaria irabazi duen, eta, horrela bida, saria bertan jasotzean. Horretarako, Arkupeko hiruatalek—komertzioa, profesionala eta ostalaritza—bat egin dute sari hauet emateko.

ALDAKETA GARAIA: EUROA

Euroari begira, denda txikiek aukera berezia dute laguntza handiagoa emateko herrikoei denda handiek baino. Arkupek karta bat bidaliko die herritarrei esateko beren burua prestatzeko ari direla eta prest egongo direla euroarekiko arazoekin laguntzeko. Aldamenean gaude; jendea entendi-zten dugu; denbora bartzeko dugu esplikatzeko. Supermerkatu handi batean ezin dizake bori eskanini.

**EAko egoitzan
sukaldea prest**

ORAIN dela bi urte inauguratu zuten EA alderdi politikoaren Orioko egoitza berria; baina, orain, sukaldia eta mahai batzuk jarri dituzte. 35en bat lagunentzako lekua dago eta baziari zein afariak egiteko aukera izango da. Erabili ahal izateko, EAko juntakoekin jarri behar da hurremanetan.

EAkoen nahia, jardueren politikoa eta gastronomikoaz gain, bertan jarduerak kulturalak ere egitea da.

**Eskusoinu joleak
Torrelavegan**

UDAL musika eskolako esku soinu ikasleak Torrelavegako Nazioarteko lehiaketan hartu zuten parte azaroaren 24, 25 eta 26an. Iaz, urrezko domina lortu bazuten ere, aurten ez dute zorterikizan; batez ere, hemengo 9-16 urte bitarte-koak 20 urtetik gorakoekin lehiatu behar izan direlako.



MUSIKA TALE BERRIAK. Ume gauziek gogozi bartzutu zuten parte, musika entzumez eta zormena erabili.

Kontzertu didaktikoak

XABIER LIZASO PIANO JOLE oriotarrak musika sensibilizazio saioa eman zuen Zarautzen eskolan, azaroaren 28an. 3-12 urte bitartekoentzat prestatu zuen emanaldi didaktikoa eta haurren harrera heroa izan zen.

Emandako saioaren helburua zen musikazale berriak lortzea: musika ezagutu, musikarekin ondo pasatu, gustuko duten edo ez erabaki dezaten. Hori lortzeko, jokua, ipaina eta lehiaketa erabili zituen umeen atentzioa mantentzeko, kompositore klasikoien lanera-

tik zati batzuak lagunduta.

1994tik dabil haurrentzako kontzertu didaktikoak ematen musikaria; lan izugarraria egin du pedagogian eta arrakasta handia lortu. Aurten, Euskadiko Orkestra Sinfonikoak antolatutako kontzerto didaktiko bat eman zuen Miramonen, azaroaren 18an. Saio hau beste hainbat hiritan aurkeztu du —Madril, Zaragoza, Cordoba eta Huesca, beste askoren artean— eta Orio Herriko Ikastolan ere emango du urtarilaren 22an.

**MAKAZAGA
Ingeniería**

- Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu
- Prosesuaren efektuak komprimatzeko gabe

Lan handuna egi
merkea

Tfnoa: 943 83 59 00

**Tragoxka
Pub**

Arizaga, 11
943 13 08 25

**URANGA
Bardotegia**

Opan, mesaje, hemeretako...

Tel/Fax: 943 83 12 36 Esko Galan

TANATORIO ZARAUTZ
EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

- Donostia eta probintziako ospitaleetan
- Aldioroko zerbitzu
- Belotorio gelak
- Kocia, eskelak, tramitzioak...

Araba kalea, 35 Zarautz
Tel/Fax: 943 13 22 52



IUS-ENTZUTEKO EMALDIA. Salatzo eta Zarauzko parrokiako abesbatzak entzutetan. Gabonetako pregoia prestotzen

Gabonetako pregoia

■ Kursaalen kantatuko dute Salatzokoek abenduaren 22an

SALATXO ABESBATZAK ETA Marina Lertxundi zuzendariak oso ekitaldi bereziar arduratu dira Gabonetan: 2000. urteko Gabonetako pregoia abestuko dute. Gipuzkoako Belenisten Elkarteak urtero antolatzen du ekitaldi hau, Donostiaiko Udal eta Kutxa lagunzaile dituela, eta erronka handia izango da Orioko jendearentzat aurten goa bere gain hartzea. Kursaalen egingo dute emanaldia abenduaren 22an, ostiralarekin.

Ehun lagun inguruk harniko du parte pregoi honetan: Marina Lertxundik zuzentzen dituen Zarauzko Santa Maria La Real Parrokiako abesbatza eta Salatzoko kideak, Maitane Mujika eta Ander Errasti dantzari oriotarrak, Iruñeko Brass Pamplona metalezko boskotea eta Agurtzane Albisua organo jolea.

Emanaldiaren lehenengo zatian kantu gregorianoa, Bachen bi Kantata eta Haendelen Mesias lan handiaren Amen eskainiko dute. Bigarren zatian, eta Gabonetako pregoia denez, garai horretarako apropoa den saioa emango dute. Partehartzaile guztiak, gainera, jantzi tipikoez apainduriak azalduko dira eta Jaiotza bividuna osatuko dute. Amaitzeko, Donostiaiko Goimailako Kontserbatorioan komposizio katedraduna den Tomas Aragues jaunak eginko Gabonetako Suite-a abestuko dute.

Kursaalen Orioko jende gutxik ikusteko aukera izango badu ere, abenduaren 16an saio bera ikus-entzuteko aukera izango dugu Orioko San Nikolas parrokiian, arratsaldeko 20:00etan hasita.

BERRI LABURRAK

Argazkiak ikusgai

ORIOKO zuri-beltzko argazki zaharrak izango dira ikusgai Salatzo tabernan, festak pasa ondoren hasita eta Errege eguna arte.

Harribilen deialdia

ERROMERIA egunari kolore eta nortasuna emateko deia egin nahi dio jendeari Harribil dantza taldeak. Horretarako, herritarrei eskatzen die baserritar jantzia ateratzeko eta parte hartzeko, egun horretako ekin-tzak herrikiago bihurtzeke. Abenduaren 6a izango da Erromeria Eguna eta bertan dantza ikusi eta egiteko aukera ugari izango dira.

Euri kontuak

PAGOETA parkean egunero biltzen dituzte eguraldiariburuzko datuak (zenbat euri egin duen, temperatura, ekaitz edo lainorik izan den...) eta estatistikak argi eta garbi erakusten dute udazken euritsua izan dugula inguru hauetan. Urrian 283,7 litro bota zituen eta azaroan 205,8; normalean izaten duguna baino bi aldiz gehiago. Urte osoan batez-besteko euri kopurua 1.500 bat litrokoa izaten da, eta aurten, horren herena egin digu azken bi hilabeteotan.

enza
usaindegia
Teléfono: 943 83 09 23

GABON
Plater kombinatuak,
pintxoak eta txokolatadak
Tlfno: 943 83 08 09

Itzala
Taberna
Kartelak jokatzea aprobado
Tel. 943 83 12 59

MOTOS Txema
Alto Lertxundi, 24 bajo - B
Tel. 943 13 35 05 - ORIO



EZADOSTASUNA ADIERAZTEKIN. Isiltasunaren elkartzen dira berriatarrak atentatuaren kouatuko protesta egiteko.

Kontzentrazioak

AZAROAREN 22AN KONTZENTRAZIOA egin zen plazan, eguerdian, Ernest Lluch ministro ohi sozialista tiroz hil zutelako. Azken hiru hilabeteotan ia astero elkartu da jendea ETAk egindako atentatuuen kontrako ezadostasuna adierazteko. Protestak isiltasunean egin dira Udaletxe aurrean, hamabost minutuko geldinmea eginez. Gehienetan 100 pertsonatik gora biltzen dira; baina, azken aldietan, gero eta jende gehiagok hartu du parte.

Jendeak ez du nahi izaten gai honetaz publikoki hitz egitt; baina, hala ere, parte hartzen duten bi pertsonaren iritziak jaso ditugu, beste askorena islatzen dute lakoan. Begoña Ruferandezek esan digu: *Juan bebar da, erakutsi bebar dugu gure ezadostasuna, arrazoigabeo egaera bonen aurrean. Ez gara ibitu bebar; ez pasatzen utzi.* Eta Marisol Aizpuruk: *Gutxienez hori egin bebar dugu, duda jartzen bazait ere. Zeozer egin bebar da, bebitzat, etxeko sortzen den bemen.*

HANDIK ETA HEMENDIK

XABIER SARASUA

ABK-ko biltzaridea

"Gandhi, Luther King, Mandela eta beste hainbat iraultzaileen irakaspenak desobedientzia zibilaren bidetik abiatzena gonbidatzen gaituzte."

ARGIA 2000/11/26

JUAN REKARTE

Disko-ekoizlea

"Ezagutzen eman nahi ditugu gure musika eta musikari onenak, eta horretarako zer hobeto Urrezko Sorta baino."

DEIA 2000/11/14

ANJEL LERTXUNDI

Ikerlea

"Neure 'ni'-tik eta neure hizkuntzatik beste batuetara joan-etorriko bidaia da unibertsitasuna."

EGUNKARIA 2000/10/20

**TAILER MEKANIKOA
MANTEROLA SL**
TELEFONAK - DAIBUCAK

Santiago auzoa · 18 postakutxa
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
E-mail: imanterola@euskalnet.net
20810 ORIO - GIPUZKOA

TMM

AENOR
ER
ISO 9002
Esferrako balbula

AENOR kalitate ziurtagiriduna

MARIJO
Ilcapaindegia

Scissors

Eusko Gudari, 8 - bajo
Tel. 943 13 47 29
ORIO



EDARITEGIA

ANTILLA
JATETXEA


Abeslari kalea, 2
Urutxikina 943 832 309

20810 ORIO

KAIUA TABERNA

C/ Anibarko Portua, 35 bajo
Tel. 943 83 40 54
20810 ORIO

RAMIRO
943 83 10 48



MAILA ALDIA.
Aurkari
gogorrak
eduki
ditzeste
beren
taldean
Pana eta
Migel
Anjel
aurtengoan.

PILOTA

Gipuzkoako txapelketa

■ *Eizmendi eta Atorrasagastik bukatu dute basierakò ligaska*

ORIOKO ARRAUN ELKARTEAREN izean jokatzen ari dira Jose Inazio Atorrasagasti oriotarra eta Migel Anjel Eizmendi aiarra aurten Gipuzkoako pala-goma txapelketa. Ligaska bukatu berria dute, eta beren taldean sei bikotetatik bosgarren geratu dira. Orain, beste taldeko Añorgaren aurka jokatu behar dute zortzigarren postua eskuratzeko. Partida hau hilaren 3an jokatuko dute Orioko frontoian gaueko 21:00etan hasita. Partida hori irabazten duenak Joko Garbiren aurka jokatuko ditu

bi partida zortzigarren postua lortzeko.

EGUBERRIETAKO PALA TXAPELKETA AIAK

Bukatu da izen ematea Aiako Eguberriako pala txapelketan jokatzeko eta zapl bikotek eman dute izena. Pilotarien artean emakumezko bat ere arituko da, Eli Lasai. Partida guztiak ostirala gau eta larunbat arratsaldetan jokatuko dira eta txapelketa Errege egunerako bukatuko da. Datorren zenbakian emango di-zuegu emaitzen berri.

ARRAUNA

Mikel Orbañanos
gero eta hobeto

AZAROAREN 14an auto istripulatzaizan zuen Mikel Orbañanos arraunlariak Zumaiako parean, baina dagoeneko osatzen ari da pixkanaka-pixkanaka. Buruan izan zituen kolperrik gogorrenak, baina frogak egin ondoren ez diote exer-arrarrik aurkitu. Orain, puntuak sendatu eta giharrik indartzen ari zaizkio eta, momentuz behintzat, ez diote ekakuntzak egingo. Senideek esan digutenenez, denbora beharko du guztiz osatzeko.

Gainontzean, arraunlariak hasi dira entrenatzen, eta dagoeneko haditugu nobedade batzuk: Santi Zabaleta, Andoni Sarasua, Ibon Gaztañazpi, Gorka Etxeberria eta Gari Uranga baya dira aurtegorako. Altak, berriz, dezente. Besteak beste: Iñigo Arruti Txabola, Asier Puertas, Koldo Lopez-tegi, Jon Gaztañazpi eta Ibai Manterola oriotarrak.

Bestalde, Gabon gauean ETB 1-en kantari arituko dira Orioko zenbait arraunlari. Oskorri taldeko musikariak etorri ziren astearrean grabaketak egitera.

ODITZ
BORMA ZASALEKO DINETAKOAK
GIZON ETA EMARI MEENTZAT
Tel. 943 83 00 89

DORRONSORO
JANARIDENDA
/ 0034 943 83 00 89

LURDES
KARAMEGAKI
Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

ITZIAR
Kirolak
Tel. 943 83 31 03

XIXARJO
ASADOR
Txoko-Gelatxu Kafetaria
Tel. 943 83 00 09 - ORIO

PORTU
ERRETEGIÀ
Santio Erekia Auzoa, z/g
Tel. 943 83 23 87
20809 AIA - ORIO

LORETXU
JATERZEA
Eusko Gudori, 18. Tel. 943 83 00 07

KIROLDEGIA

Kirol teknikariaren aurreneko proba

AZAROAREN 27an egin zen kirol teknikaria kontratzenko oposizioko lehenengo azterketa. Bederatzia lagun aurkeztu ziren eta horietatik zortzik gainditu zuten azterketa; bakarra geratu zen, beraz, kanporatua.

Hurrengo azterketa abenduaren 3an egingo da eta gai jakinen gaineko izango da. Oposizioak lau azterketa ditu, eta otsaila alderako bukatua izates espero da.

KORRIKA

Bi oriotar eta aiar bat maratoian

DONOSTIAKO maratoian, guk dakigunet, bi oriotar eta aiar batek hartu zuten parte. Hirurek bukatu zuten lasterketa: Nerea Amilibia 3 ordu eta 45 minututan, Jose Inazio Atorrasagastik 4 ordu eta minuto batean eta Iban Osak 4 ordu eta 12 minututan.

Abenduaren 3an, berriz, Zanuzko Kros Mistaia izango da eta herriko zenbait bikotek egingo du korrika. 8,5 kilometroko luzera du eta neska-mutil bikoteek batera joan behar izaten dute.



ARGAZKI ORDALEA. Mezatistik ateria ondoren kamararen aurrean jarri ziren guapo-guapo.

ARRAUNA

Hogei banderak bedeinkatuta

AZAROAREN 19AN, azken urte hauetan bezala, aurtengo denboraldian irabazitako hogei banderak bedeinkatu ziren meza nagusian. Ondoren, herriko Udaletxean jarri ziren bandera guziak, mende osoa irabazitako Kontxako banderekin batera, 1964. urtekoa izan ezik; haren ordez, bandera txuri bat jarri zuten, bere falta adierazteko. Eguraldi eskasa zela eta, zutik jarri behar izan zituzten banderak aurtengoan.

Eguerdian, sei bat mintutuko estropada laburra izan zen jubenil eta nagusien artean.

Nagusiek zortzi bat segundoko aldea eman zieten gazteei, eta hauek, bentaja hori aproba txatuz, irabazi zuten estropada, hiru bat segundoko aldea aterez. Ondoren, Aginagako Errasti sagardotegian egin zen bazkaria; 300 bat lagun elkartu ziren eta, herriko txaranga lagun zutela, oso giro ona izan zen.

Bestalde, FCC (Fomentos, Construcciones y Contratas) enpresak kamioi txiki bat oparitzion Arraun Elkarteari. Don Andresek, meza ondoren, hura ere bedeinkatu zuen herriko plazan.

K2
taberna
*Zeuk bilatzen
duzun giroa!!*

Itsas-Ondo
Itsas-Ondo
Kaia kalea, 7 Tfnoa: 943 13 11 79

AUREGI
 TABERNA
 JATETXEA

INDO
Garraio Frigorifikoa
 NACIONALA ETA NAZIOARTIKOA
 Olazkoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

AHOKULARITZA
 Fisicoa, laborala, kontablea
Eugenio Garmendia
 ASEGURU ARTEKARIA
 IBAI ONDO, 1
 Tel: 943 83 44 66 - 943 83 49 17

Gozategi
 enpartantrra
 AIA
 Gipuzkoa
 943 830728
 Maria Luisa Arruti

NIRE HONETAN

'Behi eroak'

Osasun eta ingurumen gaitan aditua den kazetari Montse Ariasek *La Vanguardia* egunkarian egindako adierazpen gordinak beren gordinean: «Abeltzainek zigorri beldurrak izango ez baliete, duela bost urte jakinago genukeen Espanian 'behien' daudela; eta ohiago izango dira»; «Hildako abereak bizidunen elikagai moduan erabilten dira eta hori da 'behien' jatorria; hori da arazo, aberrazio bat da animalia bejaraleak hildako animalien hondakinekin, haragiarekin, elikatzea», «Marek gaixotusunagatik –minbizimota bat– hiltzen diren oilaskoak jaten dira, behien hormona sintetikoak ematen zaizkie, kutsatutako esnea antibiotikoekin tratatu eta ontziratu egiten da...»; «Exaldeetan olioek estres izugarria jasaten dute eta elkar jaten dute; hildako olio-en hondakinek egunak pasatzera dituzte etxaldeko arrautza-freskoen ondoan»; «Hildako olioer arrautzak kentzen zaizkie eta kendutako arrautzak, legeak babestuta, erabili egin dira gaietako, pastak... egi-teko eta hildako olioak, berriz, zopak, prestatutako platerak eta haurrentzako potitoak egi-teko. Janarien industrian den-dena aprobatzen da»; «alarmista ni? Dagoena baino ez dut esatena. «Irterbidea zein den? Abeltzaintza ekologikoak».

Ba, horixe; on egin.

JAKES GOIKOETXEA

Soldaduzkarik gabe gizondu?

IBON ARRIZABALAGA DE MINGO

Afrikako kikuyutarren artean, mutiko bat gizontzeko garaia iristen zaionean, gizonek apropos prestatutako txabola batera eramatzen dute. Han, herriskatik eta bere amagandik aldenduta, hiru egunez baraurik egoten da. Hirugarren gaua, gizon zaharrenkin pasatzen du, suaren inguruko zirkuluaren cserita. Hasieran, izu, adiadi egoten da gaztea. Gizonetik edadetuetako batek, aitzo bat hartu eta zain bat irekitzen du, odol tanta batzuk isuriz kalabaza-ontzi batean. Aitzo bera erabiliz, bata bestearen atzetik, gizonek beren odolez betetzen doaz kalabaza, harik eta mutikoari eskaizten dioten arte. Honek, gosez eta egarriz akitua, azken tantaraino edan ohi du ematen zaion elikagaia. Erritual honekin ematen zaie ongietorria gizonartera.

Krudela eta gordinha irudituko zaigun arren, (kultura azpigaratua baten basakeria doilorra ere bai, askori), mutikoek zera ikasten dute hori: aitzoak, besterentzat zauritzeko izateaz gain, izan ditzakeela beste hainbat erabilera ere; eta, bestetik, bere amak ez ezik, gizonek ere ematen diotela jateko eta babesia.

Gure artean, Hego Euskal Herrian desagertzean dagoen soldaduzka hauxe izan da gizteek gizontzeko unea eta modua, belaunaldi kontaezinietan zehar. Orokorean, askoz zibilizatuago eta onargariago irudituko zaigun arren, badut susmoa helburuak eta ikasgaiak ez direla haienak bezain gizakoak, inondik ere.

Soldaduzkan, esaterako, armak ez dira erabilten inor kaltetzeke; baina helburua jendea hiltzen irakastea da, eta ikasgai: *azkarra ez bazara, etsaiak aurrea bartsu eta bilko zaitu*; edo, *tiro egia eta gero pentsatu*. Beste helburu bat diziplinarenarena da: *dakienari kasu egitea*; aginduak galderarik egin gabe betetzea, alegia. Honen ikasgai erabat demokratikoa dugu

gero! Halmoduzko zeozer: *nola basiko zarete zaen kabuz pentsatu eta erabakiak bartzan, tontopurdi alaenak?*

Haukin lotuta doazen ikasgaiak dira: *hiri bizitzak ez ditzki ziptzak baliu* (zigorrak zentzugabeenak, irainik mingarrienak, zeregin lohienak... merezi ditugu), edo *Aberriaren alde dena ematen badek soilik, ezkuratu dek duintaruna eta errespetua* (hau da: bizitza galdu ta gero, jende samalda erahil eta gero, ala biak batera).

Iku dezakenez, militarkiari lotuta doazen balore hauetan gure hizimoduetan sakonki errotsuak daude, eta ez dira soilik estamentu militar hutsetan agertzen: eskolan, familian, lan merkatuan, nazio askapenerako borrokan, eta-barretan ere jasaten ditugu, zoritzarrez. Erraz uler daiteke hori guztia, gure sendi eta herrietako gizonek halako moduz eta moldez *bezistek* izan direnean *gizaldi ta gizaldietan*.

Horregatik da hain garrantzitsua militarkiaren aurkako borroka. Bide honetako edozein urratsek, gizarte askeago bat dakarkigulako. Poztu gaitezen, heraz, derrigorrezko soldadutzatik libratu ditugun belaunaldi berrietako gizon guztiengatik. Ez al zen gutako askoren ametsa gure seme-alabei mundu hobeago bat uztea oinordetzan? Ba, hein txiki batean bida ere, lortu dugu! Eta armadarik eta militarkiaren ajerik gabeko mundua, zapaltzaile zein zapaldurik gabeko gizartea, lor dezakegu!

Mila esker lorpen hau eskuratzeko kartzean gizondu behar izan duzenoi. Zorionak intsumiso eta desertore guzti: Aupa zuek! Eta orain arte ezer handirik lor ez zitekeela uste zenuten guzti horici, berriz, animo! Zenbat eta gehiagok amestu, lehenago gauzatzen baitira utopiak ziruditenak.

Adimena, osasuna eta desobedientzia!



»

Mila esker
lorpen hau
eskuratzeko,
gizondu behar
izan duzenoi.

Zorionak
intsumisoei!

LTXERRI
Jatetxea
Tfnoa: 943 83 07 62

ALLIANZ-RAZ
seguros
Biel Ordo, 10
Tel. 943 13 47 60

Allianz 
MARIORTE ZALDUA
Aseguradoras
beka-zina

INAZIO MANTEROLA ETA SEMEAK
ARRAINA ETA MARISKOA
Ubegun auzoa AIA • Telfs. (943) 13 10 09 • Fax 13 39 52
8 postakutxa • 20810 ORIO



San Nikolas 2000

• festa programma

San Nikolas 2000

Abenduak 5, asteartea. San Nikolas bezpera

- 19:00 Buruhandiak.
22:30 Ikurrina altzatzea eta festen hasierako txupinazoa. Ondoren, tanborrada.
24:00 Kalejira burrundatsua. Ondoren, IZOTZ taldea txosnetako karpan.
00:30 Rock kontzertua plazan: TXAPEL PUNK eta GAITZA.

Abenduak 6, asteazkena. San Nikolas eguna. Erromeria

- Egun osoan erromeria kalez kale txarangarekin
10:00 Txistulariak kalejiran.
10:30 Ziklo krosa kanpinean.

- 11:00 Meza nagusia elizan, Salatxo abesbatzarekin.
12:00 Salda, txorizoa eta taloak plazan.
12:00 Jubilatuaren hamaiketako Babes Lekuan.
13:00 Gazteen Dantza Askatuko txapelketa plazan.
14:00 Herri bazkaria ikastolan.
19:00 Tapia eta Leturia trikitilarien eta Patxi Lopez dantzariaren ikuskizuna plazan.
23:00 Musika plazan: EGAN taldea.

Abenduak 7, osteguna. San Nikolas bigarrena. Haur eta gaztetxoen eguna

- 10:00 Txistulariak kalejiran.
11:00 Buruhandiak.
12:00 Gorritiren xexenak eta poniak ikastolan.

IL GELATO



- ✓ Gosariak
- ✓ Laranja zumoak
- ✓ Batido naturalak
- ✓ Izozki-kopak

Gabonetako helatu bereziak

- Turroia
- Ferrero Rocher
- Limoia

Ogitarteko beroak 4 minututan

Festak ondo pasa!

Etxean egindako helatuak

San Nikolas 2000

13:00 Haur parkea plazan: zezen mekanikoa, ohe malguak eta haizezko gazteluak.

14:00 Haur eta gazteen bazkaria ikastolan.

16:00 Haur parkea plazan.

19:00 Alizia Bitxikerien lurraidean antzerkia frontoian.

22:00 Haurren karaokea plazan.

23:00 Musika plazan: GAUBELA taldea.

00:30 Gazte eta helduen karaokea plazan.

Abenduak 8, ostirala. Sagardo Eguna

10:00 Txistulariak kalejiran.

12:00 Sagardo dastaketa plazan Idiazabalgo gaztarekin: Satxota, Urdaira, Bereziartua eta Altzueta sagardotegiak.

12:30 Bakailao tortilla lehiaketa.

17:00 Halterofilia txapelketa plazan.

19:00 PASAI txaranga kalez kale.

20:00 Mozorro desfilea eta lehiaketa plazan.

23:00 Musika plazan: MAGNUM & BROSED orkestra

23:00 KAMIKAZE eta GAIZKIÑE taldeen kontzertua txosnetako karpan.



Estetika zentroa
zutikako solariuma
mikropigmentazioa

Shock!

Ola kalea, 1 943 13 09 01

KaiXo
Edaritegia

Pintu eta planer kontinuuetan
berezitasuna

Anizaga, 15 · Tel. 943 13 07 73

SAGASIO KERAK

ondo pasa
jaiak!

83 12 61
AITA LERTXUNDI, 22

BOUTIQUE
ORIG'Shop

Festak ondo pasa
eta urte berri on!

Eusko Gudari, 17 Tel.: 943 83 12 44

IKAS-LEARN
Akademia

11 urte zuen artxan

* Inguruak eta artelak gainerako haurrentzat

* Asteburua ofizialak: MIT, IRIK, Admiread

* Matematika, fisika eta kimika

* Logotipoak klasikak: IRI eta DIBUIN ibilgailu
eta maha giztak

ETA ORAIN
FRANTZESA ETA ALEMANA

Ibaiztio, 8
Tel. 639 40 50 05
943 89 07 56

Gu ere Festaka goaz



Erantzun zuzena



1934KO TRAPEDUNAK. Domingo Mitxelenaren marilak saso betean agertzen zaizkigu erretratuaren, barro-barro, bi arte nejidau Konxako bandera trabazita, rempedrotarra sei urteko marka haurritza. Barna denbora ez da ofizierik pasatzera; bi besterik ez dira bezirik gelditzen: Erramolinu eta Txakolate. Hauen belatxundikoak dira gaur egungo Orioko zaharrerak.

GURE ZAHAR MAITEAK

Mende osoaren lekuko

Ez dira asko iristen laurogeita hamar urte betetzera, gehienak bidean gelditzen dira. Orion baditugu batzuk; eta ez nolanahikoak, gainera. A zer kuadrilla laurogeita hamar urtetik gorako oriotarrena, XX. mendearen lehen urteetan jaiotakoena! Horien berri emango dugu erreportaje honetan. Denena ezin eta batzuen bizitza zehatzago aztertuko dugu; herriko gazteek haien berri izan dezaten eta edozeinek zahartzaroari buruzko hausnarketatxoa egin dezan. Horixe da gure asmoa. Aintzinako gizarteetan zaharrek sekulako garrantzia zuten; gaur egun, neurri handi batean, galdu egin dutena. Gizartean galduztako leku hori berreskuratzen aletxo bat jarri nahi dugu hitz hauen bidez.

IÑAKI ITURAIN, PAT COWIE ETA RIKARDO UZKUDUN



LEHENDEROA ILABAN
1976an Diputazioak eta Udalak zabarrei egindako omenaldian, ezkerretik basita; Kontrola Manterola, Jemisa Aiestaran, Pilar Iruretagoiena, Joakina Zubil, Maria Enbil, Saturnina Arostegi, Karmen Loidi, Perpetua Loidi eta Juliana Olaizola.

Petronila de la Cruz da azken urteotan Orion urte gehien harrapatutakoa: hilabete falta zitzaiion 109 urte betetzeko, 1996ko apirilaren 12an hil zenean. Gaur egun Jose Kutx Uranga da oriotarrik zaharrena: ehun urte bete zituen maiatzean. XIX. mendean jaio zen, 1900ean; XX. mende osoa bizi izan du eta laster XXI.ean ere sartuko da. Jose Kutxek monarkia, diktadura militarra, errepublika, beste diktadura bat, eta oraingo demokrazia-edo ezagutu ditu. Euskal Herriaren batasuna ezagutuko ote da?

Hala ere, ez du hori bere kezka nagusia. Jose Kutx orain Donostian bizi da eta jakin nahi omen du zeinek zamduko duen, hera kontu egiten duen iloba joaten denean.

Hori da kasta, hori! Ba, holako kastakoak dira Orioko gainontzeko zaharrenak ere.

ERRAMOLINO ETA TXOKOLATE.

Ramon Solaberrieta eta Inazio Manterola: Erramolino eta Txokolate. Edade berekoak dira biak, 96 urte. Koinatuak dira, gainera, alargunak gaur egun, arrantzale eta arraunariak izanak biak. Oso hizimodu paretsua izan dutenak; baina, izakeraz, desberdin samarrak. Bien artean Donostiako makina bat bandera irabaziak izango dituzte. Baita hantelean baskaria eta bi arraunean

hainbat estropada ere. Berak dira, gainera, gerra aurreko estropalarietatik bizirik ditugun bakarrak.

Manuel Lasarteren Kantza-rea orlanaez liburutik hartu ditugu ondorengo hitzak:

“1996-ko otsailaren asierako egen batean, aspaldiko urteetan adiskide izan dedan gizon batekin alkarrizketa txukun bat eduki nuen. Erramolino Solaberrieta da diodan gizon an izenez. Baiña Erramolino Lino esanda errezagau jabetzen da erriko jendea.

—Larogeitaz amabi urteurrenko illean martxuan beteko ditut, Lasarte. Zaartzu naiz ederkil!—esan zidan.

—Nabikoa egin dez, Erramolino. Askoz geiago ez dago eskatzerik gizon bati—erantzun nion.

—Bai, bai. Onenbertain kon-

forme nago —zion berak—. Oraindik kalean ibiltzeko aina indar bideauskat. Poliki-poliki zaurren soziedadera joan ta kartxa jokoan ere jarduten maiz denbora pasa, ta hapo. Orrelaxe dira nere ilusio guztiek.

Arraunari una omen zan gaztetan Erramolino Lino au.

—1996-an, aserten izanbarte iztroei ta amar urte lehen bandera irabazi gendueta, ni harruan nintzala.

Garai artan bai sasoi bikarria gaurko partez—zion aitona presuntak. Buruz argi billata nuen zeukan adinera, eta izlari atsegia, beti ezagutu degus bezelaxe.

Beste gizon aipagarribat Inazio Manterola da. Orreka du onek bere jatorrizko izena. Baiña Inazio Txokolate deitzen diogu Orion denok.

AURREKO ALKALTEARENIN. Erramolino eta Txokolate, bizi eta usko adiskide misak.



Inazio Manterola larogeitaz amabi urte 1996-ko otsailean bizi omen zituen. Inazio Erramolino basio zaarreagau da illasbez edo.

Alkarrekintz estropadak juktako zituzten bi arraunlori kopetsu auek. Erramoni auxe entzun nion beingo bates:

—Gu mutil kaskorretan lagion egim giñan, zortzi urte gendizkada, Inazio ta biak; eta oraindik artan jarraitzen degu.

—Eskerrak merezi ditu alkartasun eder orrek —erantzun nion, sentitzen nuen bezelaxe.

Erramolino bertsozale purukatuak izan da bere bizitzan. Gizon amoretsu eta alaia, lagunarte aundikoa.

Inazio Manterola, berriz, serio aparta. Itz neutrual erabiltsen dituen gizan klasa.

—Garai artan bai sasoi bikarria, gaurko partez—zion aitona presuntak. Ixilla eta umilla denbora berean. Erzuen arronkarik joko inion, nere ustez, inork artara beartu ez baldin badu.

ITURAIN ANAI-ARREBAK

Karmen eta Juan Iturain anai-arrebak bi senide besterik ez dira, biak bizi dira eta biak larogeita hamar urtetik gorakoak dira. Carmen moja dago Irungo komentu batean aspalditik. Urte asko dira ez dela Oriora etorriz; baina ederki asko gogoratzentzu dira, oraingotik ere, bere gazte denborako herria.

Juan Iturainek 92 urte ditu, arrebak baimo bi gutxiago. Juanito bere garaiko pilotaririk onenerakoa izan zen. 1926an, artean 18 urte betetzeko, Bilbao Espainiako eskuzko txapelketa irabazi zuen afizionatuen mailan, hikotea bere aitarekin osaturiz; 22-17 irabazi zieten Larregi eta Gorospera. Urte berean erremontean debutatu zuen, Donostiako Moderno frontoian. Gerontik, hainbat txapelketa, kopa eta domina irabazi ditu Madril eta Euskal Herriko frontoietan.

Aspaldiko urteetan Donostian bizi da bere familiarekin.

Juanitok, bere betiko kuadri-lakockin, urtero Kontxako lehenengo estropada egunean, Hernaniko soziedadetan batean egin ohi du bazkaria. Oraindik urte gutxi arte, bazkaldu ondoren, lagunek horrela eskuatuta, salto egiten omen zuen lurrera, eta pilotu balizko erreboteik ekarri; bere gazte garaiko urteetan frontoian, beste inork baino hobeto, egiten zuen bezala.

JORGE OTEIZA

Jorge Orion jaio zen orain dela 93 urte. Izeba bat izan zuten Orion, Joakineta Enbil, 106 urterekin hil zena 1990eko irailean eta itxoin ez ziona zerurako bidean. Hala zioen Jorgek, behintzat.

Jorgeri buruz gauza asko dalkizigu, edo jakiteko modua behintzat badugu, noiznahi agertzen baitzaigu komunikabideetan. Beraz, ez gara hasiko tarte honetan bere biografia eta bere ibilbide artistikoaren berri ematen; bestea beste, hori egina dugulako KARKARAn, 89. zenbakian. Kasu honetan bihotztek, arrenguraz, txikitau berri euskaraz erakutsi ez izanak sortarazten zizkion sentimenduak adierazten dituzte bere hitz hauek jaso ditugu:

Txumai Alfaro: ‘Zaharrak dira benetan bizia ematen dutenak’

“Gizakia haurraren gainean erakitzenten da edo desegiten da. Gaur egun osa jakina da nola birrinzen den baurra, baita osa gutxi nolasortzen den, nola eraiki, eta ez dugi armatzenten batere, erasiki nabi dugunean.

Ezin dat niregandik uxatu sentimendu bat, txikitau umiatua izanarena, sakratuarenan nabastua izanarena, sakratuena baita norbere hizkuntza, eta niri kendu egiazidaten, nire aberria.

Gaizki jaio minduten, markatua, elbarritua, eta hori osa zaila da sendatzen. Ni adibide ezin egokiagoa naiz, nola eratxi daitekern euskaltasuna euskaltasunetik.”

ZAHARREN BALIOA

Txumai Alfaro nafrarak zaharrekin lan egiten du Irúneko bere kontsultan. Ondorengo hitzak bereak dira:

“Kontsultau tratatu ditut zaharrak eta ezagutu ditut ez bakarrik beren minak, baita herria kezkak, beldurak eta itxaropenak ere. Eta horietatik

geztietatik ondorio bat atera dut: zabarrak dira benetan bizia ematen dutenak. Begiradetan, kriquetan eta ajetxan erantzapeanak antzematen zazkie, vinarzeak eta pozaldiak. Oker dantzenak uraina gazteena dela, bauena oraingoz egitasmo butsa baita. Zabarra da biziaren edukiaren jabe. Horregatik deitzen diot alk adin boni urezko arua.

Eta borregatik ez dat ulertzen zergatik baztertzen ditugun zaharrak gizarterik oretiriora eta zabar etxeetan garde. Ematen diegan balio eskasak amorrira sortzen dit, pena eta ezintasuna. Gaur egun guresten dea bakarra gazteria eta gaztetasuna da eta abastu egiten dugi gazteak dantona ez dela berea, bere arbasoen lanaren fruitu batzik.”

Esker txarrekoen gizartea da gurea. Zahar etxeak ondo atendituta badante ere, urrezko kaiotetan daudela esan daiteke, eta ondo zainduta daudelako aitzakiarekin sema-alabok koantzentziagarbi besterik ez dugi egiten. Familiarek bizitzeko premia dute, eta gazteekin egoteko, hauen kemenaz eta bizi poza kutsatzeko.”

HERRIKO ZAHARRENAK

JOXE KUTZ URANGA: 1900ko maiatzean jaioa. Donostian bizi da. Arrantza-le izana.

ANTONIO GARMENDIA: 1903ko urrian Erreenterian jaioa. Grabiela Esnalen alarguna.

FRANTZISKA ETXABE: 1904ko urtarrilean Alzamabalen jaioa. Baserritarra. Intxaustineko Luisekin Oriora ezkondua.

INAZIO MANTEROLA: 1904ko urtarrilean jaioa. Araunari eta arrantzale izana.

RAMON SOLABERRIETA: 1904ko martxoan jaioa. Araunari eta arrantzale izana.

KARMEN ITURAIN: 1906ko maiatzean jaioa. Irunen bizi da egun. Moja.

MARIA ARTETXE: 1907ko apirilean Arroa Goikoan jaioa. 1996ko abuztuan Oriora etorritakoa.

JUAN ITURAIN: 1908ko maiatzean jaioa. Pilotari izana.

MARIA MARITXALAR: 1908ko ekainean jaioa.


JORGE OTEIZA: 1908ko urrian jaioa. Zarautzen bizi da. Eskultore eta idazlea.

BALENTIN IKAZETA: 1908ko azaroan jaioa. Traineru egile izana.

CONCEPCION LARRAZA: 1908ko abenduan jaioa. Ebanistoa San Sebastianen alarguna. Eskabetxerian ibilia.

HIPOLITA URAIN: 1908ko abenduan Aian jaioa. 1932an Lusarbe baserrira etorria.

ARRANTZALE ERRETRATUA. Oraintxeta bogei bat arte, orduneko alkatesarekin, Jesus Mari Aietzarrackin



AIAKO berri



ERROMERIA BEZIK. 1997an egia zen erromeria dugi bonako bau, diskoa grabatu zutenekoa.

Dema eguberritan

IGELDOKO Olasagasti eta Oikiako Epiolak apustu bat sinatu dute Aiako probalekuuan egiteko datorren abenduaren 24an, igandearekin, eguerdiko 12etatik aurrera, sarietan izaten diren baldintza berdinak. Alde bakotzak 150.000 pta jarriko ditu; Olasagastiren itzainak bera eta Telleria izango dira, eta Urrutia eta Iketza, Epiolarenak.

Eguneko zentroa berehala irekiko da

UDALEKO Gizarte Zerbitzuak aurrera darama adineko pertsonei egunez laguntzeko zerbitzuaren egitasmoa. Zentro hauek hainbat menpeko-tasun dituzten adinekoei laguntza eskaintzen diente eguna zehar, oinarrizko beharrerekarako eta behar terapeutiko eta soziokulturaletarako.

Zentroan sartzeko betebeharren artean daude etxebizitza Aiako udalerrian edukitzea; Gipuzkoan jaiotakoa izatea edo, gutxienez, 5 urteko antzinatasunarekin errolatua egotea; eta eguneroko bizitzakoekintza egiteko era gozpen dezente izatea, arrazoi fisiko edo psikikoengatik (ezin izango da, hala ere, oheratuta dagoen edo buruko arazo larririk duen pertsona izan).

Berriz ere erromeria

■ Ekainera bitarteko igandeetan izango da Aristerrazun

ZAHARRENEK GOGORATZEN DIGUTE gerra ondoren hasi zela erromeria egiten Aristerrazun. Hainbat urte pasa dira, beraz; baina oraindik jarraitzen dute trikitixa doinuek guregana hurbildu nahian, une goxoagoak izan baditu ere. Ia igandero urrian hasi eta ekaina bitartean trikiti doinua entzuten da Aristerrazun, azken lau urteetan Andatzako Erromeria Elkarteak antolatuta. Ilurabarrean hasten dira jotzen; normalean, lehenengo ordu eta erdian trikitilari gazteak izaten dira eta, jarraian, Laja eta Landakanda, Epelde anaiak, Zabaleta,

Etzakit edo Joseba Iparragirre, besteak beste, gaueko 23:30ak arte.

Asko dira urte hauetan hemendik pasa direnak, eta denek aitortzen dute Aristerrazuk izan duen garrantzia, bai erromeriari eusteko, eta baita lehenengo plazaratzen diren gazteenetan ere. Horregatik, eta elkartek antolatuta, 1997ko ekainean *Aristerrazun da plaza* izeneko diskoa argitaratu zen, eta bertan inoiz izan den jende bilkurari handiena egin zen. Egun hartan, hainbat trikiti taldeek parte hartu zuten hainbeste urtetako lana eskertu nahian.

- * Bertako babarrun elai haragiak
- * Ezpoko sukaldetako goso elai asegarria
- * Haurrentzako menu berezia da jolasdeak



PINTURAS
ASIER

Altzpeta kalea 2, 1º
943 83 46 13 - 629 43 81 55 AIA



Gozategi Enparantza, 11 - AIA
Tlf. 943 83 41 22

JULIANA ARGOTE

'Oso gustura bizi ginen Altzolan'

Pagoetako maldak ondo baino bobeto czagutu dituen emakume batekin egon gara bizketan; bainbat urtetan astero Altzolatik Aiara etorri izan zen oinez bere astoarekin, Arriete baserrian jaio eta 77 urte arte bertan bizi izandako Juliana. Orain 90 urte ditu, burua bere tokian eta oso umore ona. Guk bareu berri jakin nabi genuen; baina berak ere galdera ugari egin zizkigun, berritarrekin ondo gogoratzan dela erakutsiz.

ELE LASA

Izan al zara aspaldian Altzolan?

Bai, izan naiz eta ederki aldatuta dago; eliza ederra dago (oraindik joaten al dira aia-rak hura txukuntzera?). Lehen ere eliza polita zen, baina konpondu zenetik oso ederra dago.

Altzolako terreno guztiek aldatuta daude, ez daude igartzeko modukoak. Gure bizi-tokia ere, akaboi bertan gana-dutegia jarri zutenetik.

Makina bat aldi egin zenuen Aiajoan-etorría.

Astoak hartzeta eta joaten nintzen enkarguak egitera; beharko joan, jango bazen! Egu-



SAGIDA. Eguaz ez da astoarekin ibiltzen, baina speri ederran dago oraindik

raldi ona edo txarra egin. Ordu bete behar izaten nuen etxetik Aiara joateko, bueltan zertxobait gehiago. Larunbatero joaten nintzen, eta batzutan aste tartearen ere bai. Hori bai, bueltakoan astoari buztanetik heltzen nion eta differentsia ederra egiten zidan. Astoak ere bidea ondo ikasita zeukan eta bakarrik etorriko zen Aiatik etxera bakarrik utzi izan banu. Gainera, herrian gosokiak erosten nizkion eta gustura asko jaten zituen hark ere. Herrira ailegatzen nintzenean, moja-etxeen aldatzen nituen oinetakoak abarkak kendu eta zapatak jantzi herriko joateko; elegante ez, bai-

na txukunxeago behintzat...

Zein zen zure eguneroko bizia Altzolan?

Semea ere etxeen neukan (sei seme-alaba izan nituen) eta lan egiten nuen baserrian: aitzurrean haratzan, ganadu pila ederra ere baguenetan eta hura gobernatu behar... Altzolan bakarrik geratu ginen azkenerako, pixkanaka jendea joaten hasi baitzen... eta gu ere bai, azkenerako, Diputazioak terreno guztiek erosiz zituen eta.

Eta asteburuetan zer egiten zenuten?

• Igandetan bi meza izaten

ziren: goiz meza eta meza nangusia. Zarauztik ere asko etortzen ziren meztara. Orain, berriz, San Roman patroi egunean bakarrik izango da.

Dantzak egiten al zenuen festetan?

Egingo ez genuen, ba! Semeola baserrikoak oso dantzari onak ziren: Rufino, Serapio eta Antoniok dantza soka eta aurreskua dantzatzen zuten. Festa edernak egiten ziren, eta aiarrak asko etortzen zen. Patroi egunean txistua jotzen zen, eta gainontzekoan trikitixa izaten zen. Oso gustura bizi ginen Altzolan; erroneiriak ere egiten ziren Erdoiztan, Urdanetan, Aizarnan, Elkano, Santa Engrazian... Hara ere joaten ginen.

Zer egiten duzu orain?

Altzolatik joan nintzenean pena handia hartu nuen; baina, orain, nire alaba batekin bizi naiz eta señora bezala nago. Ni bezala ez da inor bizi.

Eta, ba al duzu Aiajoan berri?

Ez gehiegiz. Pepita serora ere hil omen zen; eliza hura ere handia eta ederra da...

Kooperatibako Miren han al dago oraindik? Eta zein dauka laguntzeko? Agustin zena ere mutil jatorrak askoa zen. Eta estankokoek zer egiten dute? Eta tabernak? Lehen Portixane zegoen, Kanua eta bestea Alhondigaren behean.

Eta sekretarioteko Maria? Hark zuentzen zizkigun paper guztiek. Era Perrexeneko Joxe? Era Antonio almazneko? Era Portixanen zein bizi dira orain? Era mojak egoten ziren hartzan zer dago?

Herrira ailegatzen nintzenean moja- etxeen aldatzen nituen oinetakoak.

'La bomba', kantu terrorista hori

MIKEL MARKEZ

Joan den asteburuan parrandan izan nintzen Donostian. Jende dezenetan zebilen tabernaz taberna geu bezala. Zerbezak ematen duen desinhibizio puntu horretara heldu ginean kantari hasi behar genuela bururatu zitzaigun. Taberna barruan ezin da, bistan da, bozgorailu gero baino gero indartsuagoak baitituzte tabernetan, komunikazioa eragotziz gehiago kontsumituko dugulakoan edo. Taberna kanpoan hastea zen erremedio bakarra, beraz. *Xalbadorren beriotzean eta Txoria txori kantatu ostean, jende multzo handi xamarra genuen gure inguruau. Nork erraiten da zuberotar kantu ez oso ezagunarekin hasi nintzen ondoren(ez oso ezaguna Hegoaldean, esan nahi dut).* Jendea crabat zapuztu zen, ezagun bat kantatzeko, kantu hori ez zekitela... Zer pentsatua eman zidan horrek.

Dagoeneko ez gara zinemara filma ezezagun batikusteko asmoan joaten, aurretik medioen bidez "publizitatutako"

eta gustatuko zaigun susmoa hartu diogun filmak bakarrik ikusten ditugu. Non ote dago jakin-mina, non sorpresa, ezer gutxi iragarri den filma txekiar edo txinatar batek guregan sordezak zirrararako aukera.

Okerragoa da liburuekin gertatzen dena: filma ikustera bazoaz, ikusi egiten baituzu, baina liburu bat eroasteak ez du esan nahi irakurriko duzunik. Halere, gutxitan erosten dugu libururik aurretik autorearekiko erreferentziarik ez badugu.

Baina musikarena da sorpresarako aukera gutxien ematen diguna. Irrati formula erabiltzen duten emisorek behin eta berriz kantu berak errepikatzearen filosofia horrekin kanturik narratzen ere gure gustuko bihurtzeko "bertute" izugarri hori erakusten digu. Euskal giroko taberna gehiegitan entzun dut uda honetan *La bomba*, kantu terrorista hori.

Beraz, guk crabakitzetan al dugu benetan? Ala bestek guregatik erabaki dezaten zain bizi gara?

AIAKO TXIKIA / ENDER



AIAKO TXIKIA

Juan Manuel Azpiroz, Aiako Txikia, dugu argazkian. 1902ko azaroaren 15ean jaio zen eta 82 urterekin hil zen. Bera izan da herriak eman duen korrikalari bikainenetako. Erabatko txapelduna izan zen 1927tik 1945a bitartean. Apustu ugari irabazi zituen, sarritan kontrarioei alde handia kenduta. Adibidez, 40 urte ongi beteak zituenan, Goizuetatik Leitzara joan-etorria egin zuen, 2 ordu, 47 minutu eta 58 segundutan, bost egun lehenago beste lasterkari batek 4 ordutan egin eta gero.

**BAR. JATETXEA
OLÍDEN**

Menú Diario • Comuniones
Bodas • Reuniones Sociales

Egunero Menú • Jaunartzeak
Ezkontzak • Bilketak

Ortzaiza Autoca • 20810 ORIO
Tel. 943 13 34 51 - 943 83 08 83

AUTOAK AUKERA ONEAN

AIA ORIO

Telefona: 943 13 04 38



Bisagragen Industria Teknikoa, S.A.

Era guztietako bisograk
Kazaleton gordetako bisograk
Krisolelezko ateak bisograk
Bisagra automotikoen, etab.

Arantzazuen Industrialeko · Irunberriko mendiak
20805. Aia (Gipuzkoa)
Tel. 943 83 05 00 · 29 Orio · Telefax. 943 13 38 62



ARKUPE elkarteak festa zoriontsuak opa dizkizue!

Festetan jarriko dugu martxan Gabonetako zozketa. Aurten zuzeneko sariak izango dira eta, gainera, otar eder bat ere zozketatuko dugu. Zorte on!



ARKAITZ
Taberna

Pietzoak, plater konbinatuak,
bukantzak

Abestiari kalea, 4 Tel. 943 83 16 57 ORIO



EDARITEGIA

KOLON TXIKI

JATETXEA

Bernardo Etxebarria, 4 - 0800 · Tel. 913 81 00 44

Kinkiladenda - Ume arropa



Argine Azkarate Guinaga

Eusko Gudariak, 9 · Tel. 943 13 48 89 · ORIO



Arin y Embil

- ALTZARIETARAKO PROIEKTUAK
- DEKORAZIOA
- GUK GEUK EGINAK

Tel. 943 831 176 - Fax. 943 455 962

Fabrika eta erakuskotak (2000 m²)
20810 ORIO

e-mail: decoracion@arinyembil.com

Sancho el Sabio, 21 (500 m²)

20010 Donostia

*Orain dela
25 URTE
1975eko azaroan*

FRANCO HIL ZEN

Dagoeneko ondo daki-zuen bezala, orain dela 25 urteko albiste nagusia Francoren heriotza izan zen egunkari guztietan. Azaroaren 20an gertatu zen *cudillooren* heriotza eta azaroaren 22an ordura arteko Juan Carlos printzea errege izendatu zuten. Gure herrian, askok pozik hartuzten berria, baina izan zen penatu zenik ere. Donostian Francoren arimaren aldeko meza egin zen jendez gainezka zegoen Artzain Onaren elizan; beti ere, *La Voz de España* egunkariaren arabera.

Orion ezohiko plenoa egin zuten udaletxean, eta bertan zera erabaki zuten: udal-ordezkiaren dolumina azaltzea Francoren familiari eta Juan Carlos printzeari; eta erabateko atxikimendua errege izendatu behar zuten Juan Carlosi. Era berean, oriotarrei dei egin zieten igande hartzan Francoren alde izango zen mezara joateko.

Nazioartean berririk garrantzitsuenak Saharatik etorritakoak izan ziren. Espainiak otsailaren bukaerarako handik aterako zela jakinaraziz zuen eta, halaber, lurraldetako administrazioa NBEren esku utziko zuela.

Aurten bezala, euri asko egin zuen eta zenbait herritan uholdeak izan ziren ibaiek gainezka egin zutelako

Orio eta Aiako albisteei dagokienez, berriz, nagusiak San Martinak eta kiroletako berriak izan ziren.

SAN MARTINAK ORTZAIAK ETA URDANETAN, DEMA ETA ABAR

Ortzaikan chiko meza eta hamaitakoz gain herri kirolak eta erromeria ere izan zen. Urdanetan Arroako Ostolaza harrijasotzileak erakustaldia eskaini zuen 125 kiloko harri kubikoarekin eta 150eko zilindrikoarekin. Altzibar afizionatu gazteak ere ekinaldi bat egin zuen 100 kiloko zilindrikoarekin. Ondoren, erromeria izan zen Laja soinu jolearekin. Alako San Isidro sari nagusian Urdulizko Bilbao anaiak izan ziren irabazleak. Lehenengo seien artean bi alar sailkatu ziren: Semeola, hirugarren postuan, eta Elorriaga, bosgarrenean.

Manuel Bellido medikua Mutiloatik Oriora etorri zen mediku postua betetzena. Manuel Lasartek Gordeak neuzkanok liburu argitaratu eta Leitzan aurkeztu zuen. Lehenengo angulak bi mila pezetan saldu ziren.

OSPREZIAK



SANTA ZEZILIA eguna ospatzeko ohitura dute herriko musikariekin. Hamaitakoa egin eta gero, halaxe joan ziren mezatarra, txistua, danbolina eta danborra joz. Gero, baxkaria izan zuten behar den bezala eguna borobiltzeko.

JAIOTAKOAK

- Alex Enparantza Ibarrola, Aian, azaroaren 18an.
- Aitziber Fernandez Lazcano, Aian, azaroaren 20an.

HILDAKOAK

- Manuela Aldabaldetreku Portularrumo, Orion, azaroaren 13an, 66 urte.
- Nikolas Aduriz Etxeberria, Orion, azaroaren 18an, 77 urte.
- Sabina Pérez de Arriluzea Uriarte, Orion, azaroaren 21ean, 88 urte.

EZKONDUTAKOAK

- Ez da ezkontzarki izan hamabost egun hauetan.

ZORIOTXARRAK

Frontoia txikitzen dutenei

Hilaren 22an, frontoiko alda-geletako atea Iurrean botata azaldu zen. Lurrera botata eta erabat txikituta; bezperan norbaitek ostikoka txikituta, non-bait.

Lapurrik izan zitezkeela pentsagenezake, zerbaile lapurtzoko asmoarekin barrura sartu nahi zutenak-edo. Baino, kontua da alda-geletean ez da goela ezer lapurtzoko. Tamailez, aldagelak ez daude erabiltzeko moduan eta ez da ezer ere egoten.

Lehen ere eman izan ditugu zoriotxarrak frontoiaaren egoera kaxkarra dela-eta, eta oraingoan ere ez gara geratuko hori egin dutenei zoriotxarrak eman gabe. Frontoia gero eta okerrago jartzearekin zer konpontzten da, ba? Astoa izateaz gain, tontoa izan behar du, gogotik, hori egiteko.

Carlos PERONA



‘Denera, 57 urte eman ditut musikan’

Santa Zezilia eguna pasa berri denean, berriko musikari beteranoetako batengana joan gara. Aitaren arrastoari segiz, bere biru semeak eta bilobak ere musikari dira gaur egun eta estropada irabazten den aldiro, ateratzen dira txarangarekin kalez kale Aliroia jotzen. Peronatarren etxeen, eskerrak oma ere, Dolores Lertxundi, musikazale amorratua den.

Noiztik zabilta musikaren munduan?

Gerra aurretik neukan gooa musikan aritzeko. 17 urte neuzkan orduan eta justu-justu geratu nintzen gerrara joan gabe; gure bitarteko denak eraman zituzten gerrara. Baina, gerrabukututakoan, 18 urterekin-edo, soldaduzkara joan ginenean, suertea izan nuen musikan sartzean, eta hantxe ikasi nuen dakidan pixka. Hiru urte eta erdi egin genituen han; ikasi beharko!

Orduan txikitatik datorkizu musikarako grina.

Bai, mik txikitatik, 1936ko gerra baino lehenagotik, nuen gogo handia Orioko musika bandan jotzeko, Baina gerra

amaitu arte, ezinezkoa zen Bandan sartzea. Gero, soldaduzkara joan nintzen, 1942ko maiatzaren 20an. Lehen esan bezala, ham suertea izan nuen eta banda militarrean sartu nintzen. Urte baten buruan, debutatu nuen, 1943ko San Fernando egunean, soldaduaren egunean, Loiolako Ingeneruen Kuarterean, Donostian. Oraindik gogoan daukat, egun hartako kalejirako lehenengo martxa. 1945. urterarte egon nintzen soldaduzkan eta, ondoren, Orioko Musika Bandan sartu nintzen, Felipe Arostegi zuzendari zegoela. Bandak, 1970eko maiatzaren 15a arte irau zuen.

Orduan, Hernaniko bandara joan ginene ni eta bi seine:

Martin eta Jesus Mari. Ni, nerori, 17 urte egon nintzen Hernaniko Bandan. Ni ateratzen, Abel biloba sartu zen banda hartan. Orain, Martin eta biak jarraitzen dute Hernaniko bandan; Martinek 30 urte daramatza, eta Abelek, 13. Hernaniko bandan garai haitako zuzendaria Juan Jose Iruretagoiena zen, Orioko semea bera.

Eta zer egin zenuten gero?

1975 edo 76an herriko txaranga eratu genuen seme, lagun eta familia artekoekin. Geroztik, gaur arte, gustura asko jotzen dut klarineteta herriko txarangan. Denera 57 urte eman ditut musikan.

Eta, beti, Klarineteta jotzen?

Bai, saxofonia ere jo izan dut; baina, aspaldian, klarineteta jotzen dut; kalean ibiltzeko ere arinagoa da, gainera.

Noiz ateratzen zarete txarangarekin?

Arraunlarentzako aliroia eta banderen bedeinkapena dagoen guztitan ateratzen

gara. Gabonetan umeek egiten duten tanborradarekin ere ateratzen gara, eta Ostiral Santuko prozesioan ere bai. Musikarien bat hiltzen denean ere ateratzen gara eta Chopinen martxa funebrea jotzen dugu, musikariaren azken agurra.

Nola moldatzen zarete instrumentu desberdinak jotzen dutenak elkarteko?

Familiakoekin eta lagun batzuekin osatzen dugu txaranga. Umeak ere aritzen dira: Musika Eskolan ikasten dute instrumentua jotzen eta gero guk ematen dizkiegu partiturak kalean jotzeko.

Estropada irabazten deunan, zinegotziek edo Arraun Elkartekoek deitzen digute halako orduetan ailegatuko direla esanez, eta gu ordurako prest egoten gara. Baten bat huts egingo genuen, baina nik dakidala irabazten den garaian beti jo izan dugu. Egia esan, ni oso gustura jarduten naiz musikan eta zutik ibiltzeko moduan naizen bitartean, klarineteta jotzen jarraituko dut.



Arrantzan edo oporretan?

Erretratoan goian, ezkerretik eskubira: Juanito Ibarguren, Patxi Peña eta Juan José Lanberri; behean: Juanito Larrañaga «Xarpas», Juan Peña, Antonio Garate eta Joxe Irure.

Argazkia Kanarietan egina da, 1956an, zazpi arrantzale oriotarrak Kanarietan zebiltzala, hango kontserbiera batetako nagusiak kontratatu zituen, hango arrantzaleei atuna harrapatzan erakusteko. Pasaiatik Romeu baporean joan ziren, han beste bat hartu eta Afrikara joateko, Dakarrera. Baino Kanarietara iritsi eta arrantza-barkua artean iritsi gabe zegoenez, 15 eguneko oporraldi ezin hobea pasa zuten han. Xarpasek dioenez, «viajenoviosen» baino hobeto.

Oporraldia bukatuta, Dakarreko itsasoan hilabete eman eta ez zuten ia atunik harrapatu. Xentimorik gabe etxera.

Joan aurretik Orion don Sotero apaiza zenak maleta bat eman zion Juanitorri han irabazitako dirua ekartzeko. Pasaiara itsaso eta Oriora bi taxitan etorri ziren. Lontzoneko aurrean gelditu, oraingo Errustaren parean, eta dirrik ez taxistei ordaintzeko. Lontzoneko Koro zenan esku zion Juanitok dirua aurrera-tzeko; «Horrenbeste egingo diaqu, gizona» izan zen haren erantzuna. Taxistei ordaindu eta etxeratu zen Juanito, ama Margaritarenjana, eskuan don Soteroren maleta zeramala. Ama asko postu zen Afrikan ikilatiko semia onik ikusita. Hamaiketako ere pozaren tamainakoa izan omen zen. Semear jaten eta ama, nonbait, maletari begira, Juanitok, mahaikoz bukatutakoan, dirua esku behar izan zion amari Lontzonean egindako zorra kitatzeko. Hilabete itsasoan pasa eta, bueltan, arropa zikinna besterik ez don Soteroren maletan!

PERTSIANAK
AKOIAZ
Aluminio, PVC
Venezolanak
Motorrak...
Tel. 943 83 52 27

Carmen eta Xomin
Arraindegia
Tel. 943 83 05 37 - 943 83 27 47

JUANTXO
harategia
Hemengo txokorra,
Especialitatea: tripolak, odolak,
etxeko produktuak...
Telono 943 83 18 37

ZUMINTZA
Montibarri
Polidurante
Alestibarre
Diprotolki berroa eta epeta
Telono: 943 83 17 39
SOLARIUM

KONTZERTUA

- Gabonetako pregoia aurkezteko ekitaldia, Salatxo eta Zarauzko parrokiako abesbatzaren eskuak. Abenduaren 16an, 20:00etan, San Nikolas elizan.

FUTBOL PARTIDUAK

- Gazteen 1. maila: abenduaren 3an, Orioko FT Ondarroako Aurreraren kontra.
- 1. Erregionala: abenduaren 17an, Orioko FT Euskalduna SDren kontra.

ERAKUSKETA

- Patxi Txikik bere lanak erakusgai izango ditu Casino kafetegi-tabernan, Zurriola kalea 24, Donostian, Gabonak arte.

OZKETA

- Orioko Udal Musika Eskolako Eskusoinu Orkestrak antolatutako zozketaen urdin koloreko 0276 zenbakiduna izan da irabazlea. Deskuidoan irabazlerik ez badira, azaltzen abenduaren 15ean egingo da berriz zozketa.

GABONETAKO KALEJIRA

- Orioko kaleetan zehar, kalejira haur guztiekin batera, abenduaren 24an, goizean.



PODOLOGOANIAK. Hilean behin etortzen da Alaria Andere Alkorta podologoa jendearen alinek zaintzena.

GABONETAKO KONTZERTUAK

- Musika eskolako ikasle guztiek eskainita, Orioko kultur etxearen, abenduaren 21ean, 17:30etan eta 19:00etan.

PODOLOGOA

- Aian, abenduaren 23an, podologo zerbitzua. Izen-ematea, udaletxean. Tel. 943 13 11 44

ARGAZKIAK

- Orioko argazki zaharrak, Salatxo tabernan, abenduaren 10etik Errege Eguna bitartean.

ERROPA ZAHARRAK

- Caritasek erropa mota guztiek, zapatak eta poltsak barne, jasoko ditu abenduaren 16an, 11:00etik 12:00etara, Estropalari kaleko 22an.

ALTZARI ZAHARRAK

- Orion, altzari zaharrak jasoko dituzte abenduaren 13an eta 27an. Bezperan utzi behar dira, zabor lekuetan eta udaletxera deitu esateko zer motatako gauzak diren.

IBILBALDI GIDATUA

- Urdanetan, abenduaren 23an, Irteera Urdaneta auzoko plazatik, goizeko 9:30etan, itzulera eguerdiko 13:30etarako. Ibilbidea: Urdaneta-Saberniko-Haitzak-Lizarra-Nebera-Pagoeta-Arriarte-Soroain-Urdaneta.

ERAKUSKETA

- Abenduaren 15etik aurrera, Oteizaren erakusketa Donostiako Kursaaleko Kubaren erakustaretoan.

ZAINTZAKO BOTIKAK**ABENDUA**

- | |
|--------------------------|
| 1ean, Olaizola |
| 2 eta 3an, Mutiozabal |
| 4an, Azaldegi |
| 5ean, Olaizola |
| 6an, Zulaika |
| 7an, Olaizola |
| 8an, Iriarte |
| 9 eta 10ean, Barrenetxea |
| 11tik 17ra, Lasa |
| 18an, Iriarte |
| 19an, Olaizola |
| 20an, Mutiozabal |
| 21ean, Barrenetxea |
| 22an, Uranga |
| 23 eta 24an, Lasa |
| 25an, Zulaika |
| 26an, Mutiozabal |
| 27an, Barrenetxea |
| 28an, Uranga |
| 29an, Azaldegi |
| 30 eta 31ean, Uranga |

URTARRILA

- | |
|------------------|
| 1ean, Uranga |
| 2an, Barrenetxea |
| 3an, Iriarte |
| 4an, Azaldegi |
| 5ean, Zulaika |

AZALDEGI: Urdarieta kalea, 8. 943 13 31 83 ZARAUZ

BARRENETXEA: Gipuzkoako kalea, 17. 943 83 23 98 ZARAUZ

MUTIOZABAL: Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 ZARAUZ

OLAIZOLA: S. Frantzisko kalea, 16. 943 13 38 14 ZARAUZ

LASA: Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio

URANGA: Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 ZARAUZ

IRIARTE: Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 ZARAUZ

ZULAIKA: Bizkaia kalea, 943 13 39 94 ZARAUZ


*Emakume bat
behar dugu,
igandeetan
lan egiteko
Orioko Bentan.
Tel. 943 833751*

SEGA
ezkontzak, bataioak,
jaunartzeak

Tfnoa: 943 83 07 16
Erreka auzoa

PATXI OLIDEN
PRESINTUA
PATXI
OLIDEN
PROKETAK
Hemanga horriga,
Etxeko produktuak: tripoli, odolki,
txokorra, txortza, txokotak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10



R. Blasius